

# MOMIA

**Materiala:** Baloia edo jertse pare bat eta manta edo lo-zakua.

## Jokatzeko era:

Jolasa prestatzen dugun artean haur bat kanpora bidali. Ondoren momiarena egingo duena lurrean etzanda jarriko da, besoak luzatuta eta eskuetan oinetakoak jarrita (hankak balira bezala). Oinen



gainean baloi bat jarriko zaio burutzat eta gero manta batez osorik estaliko da. Gela iluntzea ere egokia da, misterio kutsua emateko. Kanpoan dagoen haurra barrura sartzen denean, Egiptoko momia zahar bat aurkitu dugula azalduko dio jolas gidariak. Momia hori oso berezia da, asko daki, eta berak dakiena adieraz dezake galderak egiten bazaizkio. Buruarekin bai edo ez erantzuten du. Orduan haurra momiaren sabel gainean eseraraziko da, berak uste duen buruari (baloiari) begira eta galderak egiten hasiko zaio. Denak isil-isilik egongo dira eta, hiru edo lau galdera egin ondoren bat-batean momiak bere benetako burua eta besoak jaso eta atzetik susto handi bat emango dio.

**OHARRA.**- Ondo ateratzeko garrantzi handia du giro egokia lortzeak. Isiltasuna eta iluntasuna oso aproposak dira. Jolas gidaria irakaslea edo ume bat izan daiteke.

